eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

Batzorde Akademikoak eta Euskarakoak Osoko Bilkurari aurkeztu dion proposamena.

4 Puntua

**EHUREN GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA**

**BI MILA ETA HAMARREKO EKAINAREN HAMALAUAN OSPATUTAKO EHUN ETA BERROGEITA ZORTZIGARREN SAIOA**

UPV/EHUKO IKASLEEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO ARAUTEGIA.

**Proposamena, 2010eko apririlaren 29ko Goberno Kontseiluarena, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertstitateko iraute arauak aldatzeari buruzko proposamena onartzea.**

**Egun indarrean dauden iraute arauak Gizarte Kontseiluak onartu zituen 2005eko abenduaren 19an. Orduan unibertsitateko testuingurua ezberdina zen eta oraindik ez zen argitara eman 1393/2007 Errege Dekretua, unibertsitateko ikasketa ofizialak arautzeko dena.**

**Arauok bete dute jatorriz zuten helburua, baina ez dira egokiak gaur egungo akademia egiturarako. Izan ere, 2007ko erreforma ezartzearekin batera graduko titulazioak sortu dira, bai eta egiaztatutako graduak akreditatzeko beharra ere.**

**Horiek guztiak izan ditugu kontuan indarreko iraute arauak aldatzean.**

**Gizarte Kontseiluari aurkeztutako proposamenean ikasleak bere ikasketekin jarraitu ahal izateko bete beharreko zenbait baldintza akademiko zehaztu ditugu, baina baldintza horiek ez betetzeak, edozelan ere, ez du eragingo ikaslea behin betiko botatzea**

Propuesta de Acuerdo que la Comisión Académica y de Euskera eleva al Pleno.

Punto 4

**PLENO DEL CONSEJO SOCIAL DE LA UPV/EHU**

**SESIÓN CENTÉSIMA CUADRAGÉSIMA OCTAVA CELEBRADA EL CATORCE DE JULIO DE DOS MIL DIEZ**

NORMATIVA DE PERMANENCIA DEL ALUMNADO EN LA UPV/EHU.

**"Aprobar la Propuesta del Consejo de Gobierno de 29 de abril de 2010 sobre la modificación de las normas de permanencia en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.**

**Las vigentes normas de permanencia fueron aprobadas por el Consejo Social el 19 de diciembre de 2005, en un contexto universitario diferente y antes de la publicación del R.D. 1393/2007 que establece la nueva ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales.**

**Son unas normas que han cumplido su finalidad pero no responden a la estructura académica actual, en la que con la implantación de la reforma del 2007, aparecen las titulaciones de grado y la necesidad de acreditación de los grados verificados.**

**Estos aspectos son los que se han tenido en cuenta a la hora de elaborar la modificación de las vigentes normas de permanencia.**

**En la propuesta que se somete a la consideración del Consejo Social, se establecen unas exigencias académicas que los alumnos y alumnas deben cumplir para poder continuar unos estudios, pero con la previsión de que este incumplimiento no**

unibertsitatetik.

suponga tener que abandonar de forma definitiva la universidad.

Gehitu den beste aldaketa bat hauxe da: ikasketak arduraldi partzialean egiteko aukera. Halaber, egoera honetan dauden ikasleen baldintza akademikoak malgutu egingo dira.

Otra novedad que se incorpora es la posibilidad de realizar los estudios con dedicación parcial, flexibilizando también las exigencias académicas a los alumnos y alumnas que se encuentren en esa situación.

Era berean, 1393/2007 Errege Dekretuaren aurreko ikasketa-planak iraungi artean, xedapen iragankor bati eutsiko zaio; ondorioz, iraungitzear dauden plan horietan matrikula eginda duten ikasleei 2005eko abenduaren 19an onartutako aurreko araudia aplikatzen jarraituko zaie.
Aurkezten den proposamenaren gainean iritzia eman du Unibertsitateko Ikasleen Kontseiluak eta Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak, aldiz, aldeko txostena egin du 2010eko apirilaren 22ko bileran. Bestalde, Unibertsitateko Estatutuetako 243.r artikuluak emandako eskumenez baliatuta, Gobernu Kontseiluak proposamena onartu du 2010eko apirilaren 29an.

Asimismo, y hasta la extinción de los planes de estudios anteriores al R.D. 1393/2007, se mantiene una disposición transitoria por la que a los estudiantes y las estudiantes que se encuentren matriculados en esos planes en extinción, se les seguirá aplicando la normativa anterior aprobada el 19 de diciembre de 2005.
La propuesta que se presenta ha sido aprobada por la Comisión de Ordenación Académica y Doctorado en la sesión celebrada el 22 de abril de 2010 y, en virtud de las competencias que el art. 243.r de los Estatutos de la Universidad atribuye al Consejo de Gobierno ha sido aprobada por este con fecha 29 de abril de 2010.

1. ARTIKULUA. Baldintza akademikoak

ARTÍCULO 1. Requisitos académicos

1.1. UPV/EHUko ikasleek bete beharreko baldintza akademikoak:

1.1. Requisitos académicos exigibles al alumnado de la UPV/EHU:

a) UPV/EHUn graduko titulazioren bateko lehenengo mailan lehen aldiz matrikulatzen den ikasleak maila horretako irakasgai guztietarako egin beharko du matrikula.

a) El alumnado que se matricule por primera vez en la UPV/EHU de primer curso de una titulación de grado deberá matricularse de todas las asignaturas que integran el mismo.

b) Ikasleak lehenengo mailako eskola zamaren gutxienez % 15 gainditu beharko du (kreditutan neurtuta), ohiko eta ezohiko deialdietan.

b) Deberá aprobar, como mínimo, entre las convocatorias ordinaria y extraordinaria el 15% de la carga lectiva de primer curso, medida en créditos.

c) Matrikulako bigarren urtearen amaieran, aldiz, ikasleak lehenengo mailako eskola zamaren gutxienez % 30 gainditu beharko du (kreditutan neurtuta).

c) Al final del segundo año de matrícula, el alumnado deberá tener aprobado como mínimo el 30 % de la carga lectiva del primer curso, medida en créditos.

1.2 b) eta c) ataletan ezarritako baldintzak betetzen ez dituenak ezingo du ordura arte egiten ari zen ikasketekin jarraitu.

1.2 Si no cumple los requisitos establecidos en los apartados b) o c) anteriores, no podrá proseguir los mismos estudios.

1.3. 1.2. atalean azaldutako egoeran dagoen

1.3 El alumnado que se encuentre en la

ikasleak beste titulazio bateko ikasketak hasi ahalko ditu, balorazio irizpideen eta plazak esleitzeko ikasturte bakoitzerako zehaztutako irizpideen arabera (irizpideok Gobernu Kontseiluak onartzen ditu unibertsitateko titulazioetan sartzeko prozedurari buruzko legedia garatzeko). Bigarren titulazioan ikasten hasi eta ez badu 1.1. atalean zehaztutakoa betetzen, ezin izango du beste ikasketarik egin UPV/EHUn, harik eta bi ikasturte UPV/EHUtik kanpo eman arte.

situación descrita en el apartado 1.2 podrá iniciar estudios conducentes a otra titulación, sometiéndose a los criterios de valoración y adjudicación de plazas que para cada curso académico aprueba el Consejo de Gobierno en desarrollo de la legislación que regula los procedimientos para el ingreso en las titulaciones universitarias. En el supuesto de que en esta segunda titulación no cumpliera lo dispuesto en el apartado 1.1., no podrá cursar estudios en la UPV/EHU hasta permanecer dos cursos académicos fuera de la UPV/EHU.

## 2. ARTIKULUA. Ikasturte bakoitzerako matrikula

## ARTÍCULO 2. Matrícula para cada curso

2.1. Ikasleak aurreko mailetan gainditzeke dituen irakasgai guztietan matrikulatu behar du.

2.1. El alumnado deberá matricularse de todas las asignaturas pendientes de cursos anteriores.

2.2 Ikasleak gehienez 60 kreditu berritarako egin dezake matrikula. Guztira, kreditu berriak eta errepikatutako kredituak batuta, ezingo du 90 kreditu baino gehiagotan matrikulatu.

2.2 El número de créditos nuevos máximo de que puede matricularse el alumnado será 60 créditos. En total, sumando los créditos nuevos y los créditos repetidos, no puede superarse la cifra de 90 créditos.

## 3. ARTIKULUA. Irakasgai bakoitzerako deialdi kopurua eta azterketa eskubideari uko egitea

## ARTÍCULO 3. Convocatorias para cada asignatura y renuncias

3.1. Ikasleak sei azterketa deialdi izango ditu irakasgai bakoitzerako.

3.1. El alumnado dispondrá de seis convocatorias de examen para cada asignatura.

3.2 Azterketa eskubideari uko eginez gero, deialdi hori ez da kontuan hartuko.

3.2 La renuncia al derecho de examen en cada convocatoria implica la no contabilización de la misma.

3.3. Azterketa eskubideari uko egiteko, nahikoa izango da azterketara ez bertaratzea.

3.3. Para renunciar al derecho al examen, bastará con no presentarse.

3.4 Bosgarren, seigarren eta salbuespenezko deialdiko azterketak epaimahai batek zuzenduko ditu, Gobernu Kontseiluak onartutako arauei jarraituz.

3.4 Los exámenes correspondientes a las convocatorias quinta, sexta y excepcional se juzgarán por un tribunal de acuerdo con las normas que establezca el Consejo de Gobierno.

Ikastegian ikasleren bat badago bosgarren, seigarren edo salbuespenezko deialdian,

En todos los centros, y para cada asignatura en que haya estudiantes con quinta, sexta o

aurreko paragrafoan adierazitako epaimahaia osatuko da, eta ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan argitaratuko da epaimahaiaren osaera, kideen izen eta guzti. Epaimahaia osatzean, irakasleak aurreko deialdietan zuzentzaile-lanetan jardun gabeak izan daitezen ahaleginduko gara, ahal den neurrian.

convocatoria excepcional, se constituirá el tribunal indicado en el párrafo precedente, velando para que los docentes asignados, en la medida de lo posible, no hayan sido los correctores en las convocatorias anteriores, y se hará pública su composición nominal en el primer trimestre del curso.

3.5. Sei deialdiak behin agortuta, ikasleak salbuespenezko deialdi bakar bat eska dezake UPV/EHUko errektoreari zuzendutako idatziaren bidez.

3.5. Agotadas las seis convocatorias de una asignatura, el alumnado podrá solicitar la concesión de una única convocatoria excepcional en escrito dirigido al Rector, Rectora de la UPV/EHU.

Salbuespenezko deialdia emateari buruzko erabakia UPV/EHUko errektoreak emango du, kontuan hartuta ikaslearen ikasketen espedientea eta beste gorabehera batzuk.

La decisión sobre la concesión o no de la convocatoria excepcional corresponderá al Rector, Rectora de la UPV/EHU que deberá, a tales efectos, valorar el expediente académico y otras circunstancias del alumnado.

3.6 Irakasgai baterako deialdiak agortuz gero, ikasleak ezingo du unibertsitatean ordura arte egiten ari zen ikasketa horiekin jarraitu.

3.6 Agotadas las convocatorias de una asignatura, el alumnado afectado no podrá proseguir los mismos estudios que ha venido cursando en esta Universidad.

4. ARTIKULUA. Matrikulako urte kopurua.

ARTÍCULO 4. Número de años de matrícula

4.1. Ikasleak matrikulako urte kopurua mugatua izango du bere graduko ikasketak amaitzeko; zehazki, graduak dituen maila kopurua eta beste bi urte gehiago izango ditu.

4.1. El alumnado dispondrá de un número de años de matrícula para poder finalizar los estudios de grado correspondiente al número de cursos del grado más otros dos años adicionales.

4.2 Matrikulako urte horiek agortuta ez baditu graduko ikasketak amaitu, salbuespen gisa, eta behar bezala arrazoitu ostean, beste urte bat eska dezake. Horretarako, ikastegiko dekanoari edo zuzendariari idatzia aurkeztu beharko dio. Honek erabakia hartzerakoan kontuan hartuko ditu ikaslearen ikasketen espedientea eta beste gorabehera batzuk.

4.2 Transcurridos esos años de matrícula sin haber finalizado los estudios de grado, excepcionalmente, y de forma justificada, se podrá solicitar la concesión de un año adicional en escrito dirigido al Decano, Decana, Director o Directora del Centro, quién deberá, a la hora de resolver, tener en cuenta el expediente académico y otras circunstancias del alumnado.

4.3 Ikastegiko dekanoak edo zuzendariak hartutako erabakiaren kontra egin daiteke Unibertsitateko errektoreari gorako errekurtsoa aurkeztuz hilabeteko epean.

4.3 La resolución que adopte el Decano, Decana, Director o Directora del Centro será recurrible en alzada en el término de un mes ante al Rector o Rectora de la Universidad.

**5. ARTIKULUA.** Egoera bereziak

Ikasleari ez zaizkio ezarriko 1.2., 4.1. eta 4.2. artikuluetan zehaztutakoak, baldin eta honako egoera bereziren batean badago:

- Eskola aldian ikaslea gaixorik egon bada hiruhileko batean baino luzaroagoan. Egoera hori behar bezala egiaztatu beharko du.
- Objektiboki baloratu daitekeen beste egoeraren bat.

Egoera horietakoren batean egonez gero, alegazioa ikastegiko idazkaritzan aurkeztu beharko du ikasleak dekanoari/zuzendariari zuzendutako idatziaren bidez, eta dekanoak/zuzendariak emango du eskariari buruzko erabakia.

**6. ARTIKULUA.** Arduraldi partzialeko ikasleak

6.1 Arduraldi partzialeko ikasletzat joko dira 60 kredituz azpiko matrikula egiten duten guztiak.

6.2 Matrikula egiteko urte kopurua kalkulatzerakoan (4.1 atalean zehaztuta), arduraldi partzialeko matrikulak urte erdi gisa zenbatuko dira.

**7. ARTIKULUA.** Matrikula baliogabetzea

7.1. Ikaslearen eskariari jarraituz matrikula baliogabetuz gero, ikasle horrek ez duela matrikularik egin ulertuko da iraute hauen ondorioetarako.

7.2. Ikasleak matrikula baliogabetzeko duen epea abenduaren 31n bukatuko da.

7.3. UPV/EHUk berak bere kabuz baliogabetuko du matrikula, baldin eta ikasleak ez badu betetzen matrikula egiteko zehaztutako baldintzaren bat edo ez badu matrikula ordaindu zehaztutako epeen barruan.

**ARTÍCULO 5** Situaciones especiales

El artículo 1.2, 4.1 y 4.2 no será de aplicación al alumnado en tanto se encuentren en alguna de las situaciones siguientes:

- Enfermedad prolongada durante más de un trimestre lectivo, debidamente justificada.
- Otras situaciones de valoración objetiva.

La alegación de cualesquiera de estas circunstancias deberá presentarse en la secretaría del centro, dirigida al Decano, Decana, Director, Directora, del mismo quien resolverá la solicitud presentada.

**ARTÍCULO 6.** Alumnado con dedicación parcial

6.1 Se considerará alumnado con dedicación parcial a quienes realicen una matrícula inferior a 60 créditos

6.2 A efectos de cómputo del número de años de matrícula establecido en el artículo 4.1, los años de matrícula con dedicación parcial se contarán como medio año.

**ARTÍCULO 7.** Anulación de matrícula

7.1. La anulación de matrícula previa solicitud del alumnado tendrá a efectos de permanencia la misma consideración que si el estudiante no se hubiera matriculado.

7.2. El alumnado podrá anular la matrícula hasta el 31 de diciembre de cada año.

7.3. La anulación se efectuará de oficio por la UPV/EHU cuando el alumnado no reúna alguno de los requisitos necesarios para realizar la matrícula y cuando no haya hecho efectivo el precio de la matrícula dentro de los plazos establecidos.

8.- ARTIKULUA. Prozedura

8.1. Arautegi honekin zerikusia duten eskariak (3.5. atalean adierazitakoa salbu) ikastegiko dakanoari/zuzendariari zuzendu beharko zaizkio. Hark hartutako erabakiaren kontrako errekurtsoa, ordea, errektoreari hilabeteko epean.

8.2. Arautegi honetan jaso ez den guztirako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako prozedura ezarriko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Desagertzear dauden diplomatura, lizentziatura, ingeniaritza tekniko, ingeniaritza, arkitektura tekniko eta arkitekturan matrikulatutako ikasleei Gizarte Kontseiluak 2005ean onartutako iraute arauak ezarriko zaizkie (2006ko urtarrilaren 17ko EHAAn argiratuak). Hori horrela izango da harik eta ikasketa horiek erabat desagertu edo graduko ikasketetara egokitu arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Arautegi honek UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak 2005ean onartutako iraute arauak indargabetzen ditu, bai eta arau haiek garatzeko zehaztutako xedapen guztiak ere, kalterik egin gabe Xedapen Iragankorrean ezarritakoari.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Iraute arau hauek 2010/2011 ikasturtearen hasieran jarriko dira indarrean, graduko ikasketak ezartzen direnean.

Bigarrena. Errektoreak, urtero-urtero, arautegi honen emaitzen eta ezarpenaren berri emango dio Gizarte Kontseiluari."

ARTICULO 8. Procedimiento

8.1. Cualquier petición derivada del cumplimiento de las presentes normas con excepción de lo previsto en el apartado 3.5 deberá dirigirse en primera instancia para ser resuelta al Decano, Decana, Director, Directora, cuya resolución será recurrible en el término de un mes ante al Rector o Rectora

8.2. En lo no previsto en esta normativa, se aplicará al procedimiento las normas de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Al alumnado matriculado en los estudios en extinción de Diplomaturas, Licenciaturas, Ingenierías Técnicas e Ingenierías, Arquitectura Técnica y Arquitectura, y hasta la total extinción de estos estudios o su adaptación a los estudios de Grado, se les aplicará la Normativa de Permanencia aprobada por el Consejo Social en el año 2005 y publicada en el BOPV del 17 de enero de 2006.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

La presente Normativa deroga la anterior Normativa de Permanencia aprobada por el Consejo Social de la UPV/EHU en 2005, así como las disposiciones de desarrollo, sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Transitoria

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Las presentes normas de permanencia entrarán en vigor al inicio del curso 2010/2011, con la implantación de los estudios de Grado.

Segunda. El Rector o Rectora informará al Consejo Social anualmente de los resultados y aplicación de la presente normativa."